

«Beti agurtzen duen jende jatorra»

Amagoia Mujika
Telleria

Gaizki lo egin dut. Ohera joan aurretik albisteak begiratzea okurritu zait eta Tenerifen desagertuta zeuden haurretako bat itsasoaren hondoan hilda topatu dutela irakurri dut. Aitak akabatu du amari bizitza osorako mina emateko, bizitza osorako arnasa mozteko. Segidan irakurri dut Sevillan desagertuta zegoen 17 urteko neskatoa ere akabatu egin duela bere bikotekide ohiak. Eta Eivissan hotel bateko balkoitik behera erori eta hil zen 22 urte emakumea ez zela erori, bere bikotekideak bota egin zuela. Gaizki lo egin dut, oso gaizki.

Alaba nerabeari esan izan diot gauez etxera etortzen denean atariko atea ondo bultza eta ixteko eskaileretan gora abiatu aurretik. «Zergatik?». Badaezpa-

da, ea norbait sartuko zaion atzetik. Eta oraintxe pentsatzen jarri naiz zeinen erridikuluak garen alaba nerabeen amak. Arriskurik handienak kalean eta ezezagunen besoetan baleude bezala.

Aitak itota hildako sei urteko neskato horrek zer pentsatu behar zuen babestu behar zuenak, besoetan hainbestetan kulunkatu zuenak, hondartzan bustitako bainujantzia erantzten lagundu zionak, goizetan esnea eta gailetak prestatzen zizkionak, itota akabatu behar zuenik. Aita ez da izan eskaileretan ilunpetan agertu zaion ezezagun zital bat. Parez pare eta argia piztuta agertu zaion piztia izan da. Ez da eroa. Aitak bazekien zer egin zuen eta zertarako.

Hotelean oporretan zegoen emakume gazteak zer pentsatu behar zuen hotele-

ko terraza ederra bizirik zapalduko zuen azken azulejua izango zela. Zer pentsatuko zuen maitaleak, oheko izarak korapilatzen laguntzen zionak, balkoitik behera bultza egingo zionik.

Kontua oso larria da. Ustezko parekidetasunean hazitako eta hezitako belau-naldietan erasotzaileak, zapaltzaileak, matxistak sortzen jarraitzen dugu.

Tartaren moldea aldatu dugu, baina tartaren osagaiak lehengo berak dira: maitasuna jabetzaren ertzetik ulertzen duten gizonezkoak, frustrazioa kudeatzen ez dakitenak, maskulinitatearen atzean segurtasun ezak ezkutatzen dituztenak, modu sanoan maitatzen ez dakitenak, matxistak eta arriskutsuak. Bizilagunen begietara, «beti agurtzen duen jende jatorra». •

«Rishmawi afera» eta elkartasunaren kriminalizazioa

Koldo Sagasti

Bi hilabete luze pasatu dira Israelgo armadako soldaduek Juana Ruiz Sanchez langile humanitarioa bahitu zutenetik. Ruizek, Juani Rishmawi izenez ezagunagoa Palestinarekiko elkartasun zirkuluetan, 35 urte zeramatzan Health Work Committees erakunde sanitarioan lanean, harik eta iragan apirilaren 13ko goizaldean okupazio armadak bere Betleemgo etxean sartu eta, leporatzen zizkioten balizko karguak jakinarazi gabe, atxilo eraman zuen arte. Geroztik espetxe militar batetik bestera eraman dute, bakartuta beti, eta sei ordutik gorako itaunketak jasan behar izan ditu, bere erakundea PAHF (Palestina Aska-

tzeko Herri Frontea) alderdi ezkertiarra- rekin lotuko zuen aitoren bat ateraraziko ziotelakoan. Iragarritako atxiloketa baten kronika izan da; izan ere, Rishmawiren elkarteak, beste hainbat gizarte eragile palestinarrek bezala, urteak daramatza okupazio erregimenaren jomugan. Espainiar nazionalitatea izanagatik, herritar palestinarrei ezarri ohi dieten salbuespenezko legedi militarra ezarri diote Rishmawiri. Giza eskubideen aldeko elkarteek salatzen dute Palestinako populazioaren %20 noizbait kartzelatik pasatu dela, eta Juanirena milaka palestinar horien arteko beste kasu bat gehiago izan liteke, baina bereak badauka oso intentzionalitate bihu-

rri bat: Palestinarekiko elkartasun mugimenduan izua hedatzea. Rishmawiren atxiloketa beste azkoin buelta bat da giza eskubideen aldeko mugimenduaren kontrako beldur estrategian, mehatxu esplizitu bat Palestinan jarduera humanitarioan diharduten erakundeentzat.

Uztailaren 7an dago aurreikusita Rishmawiren kontrako epaiketa militarra. Orain arte ezer egin ez duten Espainiako erakundeek erantzukizuna da langilea libre utz dezaten egin beharreko eginbide diplomatikoak egitea. Gure ardura, berriz, sionismoak ezarri nahi duen beldurraren aurrean amore ez ematea. •